

2018ko autonomo baten ikuspuntua

Lasturko Miliaren lehengusua naiz.

Asteasuko eta Segurako itsuak beren gitarrekin, Asteasuko eta Segurako itsuen emazteak beren panderoekin, nire lehengusuak dira.

Etxahun, Iparragirre, Bilintx, Txirrita, Mendaro Txirristaka, Orixe, Jon Zabalo Txiki, Rikardo Arregi, Xabier Lete, Elgeta, Maurizia, Gabriel Aresti, Lourdes Iriondo...

Horiek ere lehengusuak ditut.

Aldian aldiko langile autonomoak izan zirelako.

Denak ere inolako aitortza profesionalik gabe bizitakoak. Bestelako tituluak bildutakoak: alprojak, alferrak, arloteak, neskabanderak, bardoak, artistak, poetak...

Haien ondorengoa naiz:

Egun batean pobre, beste batez jauna. Ez aberatsa, "jauna" baizik, alegia, "miretsia".

Herriaren alde dagoen sortzailea, beti herriaren alde.

Txaloak, eskerrik anitz, sariren bat edo beste, subentzio hauxe.

Etsipen batean sinatutako kontratu abusiboak.

Lehiaketen amarruetara lerratua.

Banekien, banekien horrelaxe izango zela.

Euskalgintzak beti behar duen doako kolaboratzailea euskalgintza asmatu zedin baino lehenagotik.

Zirkuitu ekonomikotik urrundua.

Telebistan belztua, irratian isildua.

Ez da saltzen.

Ez duzue jenderik biltzen.

Herri honek gutxi irakurtzen du.

O, ai, ei! Zer litzateke Euskal Herria pilotarik gabe?

Aski da.

Neure burua definitu ahal izan dut.

Artista? Utikan! Miretsia? Utikan!

Euskararen langile autonomia naiz.

Langilea. Nire lana, horrenbeste.

Autokontzientziak elkartzera deitzen nau.

Erakunde bat behar dugu.

Euskarari zor natzaio osorik, baina euskarak zenbat zor didan,
nik neuk ere ez dakit.

Eta inork ez du kontabilizatuko.

Alor guztien arteko intersindikala antolatu behar dugu.

Gure duintasunaren alde eta gure hizkuntzaren duintasunaren
alde eragiteko.